

**DECRETO N° 883**  
(P002310)

Udalbatzak, bi mila eta hamarreko martxoaren hogeita hamaikan, eginiko bilkuran, besteren artean, honako akordioa hartu zuen, A.F.A.ren 206 artikulua salbuespenarekin:

“Gaitzat harturik 8.1.03 ARTIA esparruko GIZARTE-EKIPAMENDUko partzelaren Xehetasun Azterketari dagokion 2009PEDE0003 zenbakiko espedientea.

**Egintzak:**

-2010ko utarrilaren 21eko Alkatzaren Ebazpenaren bidez erabaki zen hasiera batean onestea 8.1.03 ARTIA eremuko Xehetasun-azterketa. KIROL EKIPAMENDUko Partzela.

Espedientea jendaurreko informazio-izapidetzan jarri ondoren, horretarako Gipuzkoako AOn 2010eko otsailaren 1eko 19 zk.an eta 2010eko urtarrilaren 28ko Diario Vascon argitaratuz, ez da alegaziorik aurkeztu.

- 8.1.03 ARTIA esparruaren barrenean xehetasun-azterketaren xedeko eremua GIZARTE-EKIPAMENDUko (EC) partzela gisa kalifikatua dagoenak osatzen du.

Sustatzailea Irungo Udala da.

-Plan Nagusiaren zehaztapenak garatzearen formulatu zen *8.1.03 Artia eremuko Barne Erreformarako Plan Berezia*, eta Udalbatzak behin betiko onestea erabaki zuen 1999/10/27an egindako osoko bilkuran.

*Plan Berezi* horren barruan GIZARTE EKIPAMENDUKO LURZATI bat dago, Udalarri laga zitzaiona.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día treinta y uno de marzo de dos mil diez, adoptó, con la salvedad del Art. 206 del R.O.F., entre otros, el siguiente acuerdo:

“En relación con el expediente n° 2009PEDE0003 relativo al Estudio de Detalle en la parcela EQUIPAMIENTO COMUNITARIO en el ámbito 8.1.03 ARTIA.

**Resultando los siguientes hechos.**

-Mediante Resolución de la Alcaldía de fecha 21 de enero de 2010, se acordó aprobar inicialmente el Estudio de Detalle en el ámbito 8.1.03 ARTIA. Parcela EQUIPAMIENTO DEPORTIVO.

Sometido el expediente al trámite de información pública mediante publicación de anuncios en el BOG n° 19 de fecha 1 de febrero de 2010 y Diario Vasco de fecha 28 de enero de 2010, no se han presentado alegaciones.

- El área objeto del Estudio de Detalle está constituida por la parcela calificada de EQUIPAMIENTO COMUNITARIO ( EC) incluida en el ámbito 8.1.03 ARTIA.

Se promueve por el Ayuntamiento de Irun.

-En desarrollo de las determinaciones del Plan General vigente se formuló el *Plan Especial de Reforma Interior del ámbito 8.1.03 Artia* que fue aprobado definitivamente por el Ayuntamiento Pleno en sesión de 27/10/1999.

El citado *Plan Especial* contempla una PARCELA DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO que fue objeto de cesión al Ayuntamiento.

Xehetasun-azterketa honen bidez arautzen dira indarrean dagoen Plan Berezian definitutako EC partzelaren eraikigarritasun baldintzak eta horren arabera antolatzen da Zurbaran kaleko sestraren pean garajeetarako soilik izango den eraikuntza eta garatzen da kale horretatik Pio Baroja kalerainoko lur-azalerako ekipamendu programa bat.

Lurzati horrek forma irregularra eta topografia zaila dauzka, eta iparretik hegora koten arteko alde garrantzitsuak; alde horiek baliatuko ditu antolamenduak garajeetarako izango den eraikuntza guztiari gehenez ere sestrapean hiru solairu emateko.

Lur gainerako jolaserako eta ekipamendu soziokulturaleko erabilera planteatzen da, parkearen erdi aldean-edo aire zabaleko auditorio bat duena, erdi mailako altueran, partzelara sarbidea duten kaleetatik datozen oinezkoen joan-etorria antolatuko duena. Behe aldean Zurbaran eta Berroeta Margolaria kaleen arteko ertzetik sartuta izaera urbanoagoa izango duen plaza bat egingo da, eta hortik izango da lurrazpiko aparkalekuaren sarrera eta irteera, zeinaren ondoan egingo den haurrentzako jaolastoki bat.

#### **Argudioak:**

2/2006 Legeak, 73 artikulua. *Xehetasun-azterketak* atalean dioenaren arabera, hirigintza-antolamenduko tresna honek eduki hau izan behar du eta honetara egokitu:

*1. Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela.*

Se formula el presente Estudio de Detalle que regula las condiciones de edificación de la parcela EC definida en el Plan Especial vigente, de forma que se ordena la edificabilidad destinada a garajes exclusivamente bajo la rasante de la calle Zurbaran y se desarrolla un programa de equipamiento para la superficie desde la citada calle hasta Pío Baroja.

La parcela tiene forma irregular, con una topografía difícil con una diferencia de cotas importante de norte a sur, que la ordenación aprovecha para plantear la totalidad de la edificabilidad destinada a garaje en un máximo de tres plantas bajo rasante.

En la superficie se plantea un uso recreativo y de equipamiento sociocultural con un auditorio al aire libre en la parte central del parque a una altura intermedia, de forma que organiza la circulación peatonal desde las distintas calles que dan acceso a la parcela. En la parte baja con acceso desde la esquina entre las cales Zurbaran y Pintor Berroeta, se ordena una plaza de carácter más urbano desde la que se da acceso y salida al aparcamiento subterráneo y junto al cual se reserva un espacio de juegos infantiles.

#### **Considerando los siguientes argumentos:**

Atendiendo a las determinaciones de la Ley 2/2006 en su *artículo 73. Estudios de detalle*, el presente instrumento de ordenación urbanística debe contener y ajustarse a lo siguiente:

*1. Los estudios de detalle tienen por objeto completar o adaptar las determinaciones de la ordenación pormenorizada en cualquier clase de suelo. La necesidad o conveniencia de la complementación deberá justificarse por los propios estudios de detalle, cuando su redacción no esté prevista por el planeamiento.*

*2. Las determinaciones de los estudios de*

2. Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun-azterketak:

a. Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokaduak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.

b. Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenaren berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzorua kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.

c. Urbanizatzeko lanen eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehetuan egongo dira jasota.

3. Xehetasun-azterketek ezingo dituzte, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu, edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, aurreko paragrafoko b) letran xedatutako arazuek kendu gabe”.

-Xehetasun azterketak antolamendu proposamena jasotzen du eta adierazten du debekatu egiten dela sestra gainean eraikitzea garaje erabilera izango duen ezein elementu, aparkalekurako sarrera-irteerarako beharrezkoak direnak izan ezik.

Lerrokadurak eta sestrak, profilak eta altuerak jasotzen ditu, eta estetika, apaingura eta eraikuntzaren inguruko beste baldintza batzuk ere bai.

-Xehetasun azterketak ez du partzelaren lurrazalaren erabilera aldatzen ez eta hirigintza-eraikigarritasuna gehitzen.

-Espedientea Hiri Garapena, Etxebizitza, Obra

*detalle deben circunscribirse a:*

a. El señalamiento, la rectificación o la complementación de las alineaciones y rasantes establecidas por la ordenación pormenorizada.

b. La ordenación de los volúmenes de acuerdo con las previsiones del planeamiento correspondiente. Cuando así sea necesario o conveniente por razón de la remodelación tipológica o morfológica de los volúmenes, esta ordenación puede comprender la calificación de suelo para el establecimiento de los nuevos viales o de nuevas dotaciones públicas.

c. La regulación de determinados aspectos y características estéticas y compositivas de las obras de urbanización, construcciones, edificaciones, instalaciones y demás obras y elementos urbanos complementarios, definidos en la ordenación pormenorizada.

3. Los estudios de detalle en ningún caso pueden infringir o desconocer las previsiones que para su formulación establezca el planeamiento correspondiente. Asimismo, tampoco pueden alterar el destino del suelo, incrementar la edificabilidad urbanística ni suprimir o reducir viales o dotaciones públicas establecidas en el planeamiento, sin perjuicio de lo dispuesto en la letra b del apartado anterior.

-Recoge el Estudio de Detalle la propuesta de ordenación señalando que se impide la construcción sobre rasante de elementos correspondientes al uso de garaje a excepción de los necesarios para resolver los accesos al aparcamiento.

Define las alineaciones y rasantes, los perfiles y alturas y otras condiciones estéticas, de ornato y constructivas.

-El Estudio de Detalle no altera el destino del suelo de la parcela ni incrementa la edificabilidad urbanística.

-Examinado el expediente en la sesión de la Comisión de Desarrollo Urbano, Vivienda, Obras Públicas y Medio Ambiente de fecha

Publikoak eta Ingurumeneko Batzordearen 2010eko martxoaren 25eko bilkuran aztertu da.

Ikusirik espedientean jaso dagoen dokumentazioa

**Udal Batzarrak zera erabaki du:**

**1.- Behin betiko onestea 8.1.03 ARTIA esparruko GIZARTE-EKIPAMENDUko partzelaren Xehetasun Azterketa.**

**2.-Erabaki hau irmoa da administrazio-bidean. Beraren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi errekurtoaren aurretik, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean, edo bestela, Euskadiko Justizia Epategi Nagusiko Kontentzioso Administratibo Salaren aurrean zuzenean inpu gnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean, bidezkozat jo litekeen beste edozein errekurtoz gainera.”**

**DEKRETUA:** Aurreko erabakian agindutako guztia beteko zaie interesatuei.

Hiri honetako Udal Txit Goreneko Alkate-Lehendakari jaunak agintzen eta sinatzen du, Irunen bi mila eta hamarreko apirilaren 7an.

ALKATEA / EL ALCALDE,

**DILIJENTZIA:** Data honetan betetzen da agindutakoa, ziurtatzen dut.

25 de marzo de 2010.

A la vista de la documentación obrante en el expediente

**El Pleno de la Corporación acuerda:**

**1º.-Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle en la parcela de EQUIPAMIENTO COMUNITARIO en el ámbito 8.1.03 ARTIA.**

**2º.- El presente acuerdo es firme en vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante la Sala de lo contencioso administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.”**

**DECRETO:** Se dará cumplimiento a los interesados de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Lo manda y firma el Señor Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de esta Ciudad de Irun, a 7 de abril de dos mil diez, certificado.

IDAZKARIA / EL SECRETARIO,

**DILIGENCIA.-** Con esta fecha se cumple lo ordenado, certificado